

39/2015 legeak 133 artikuluan, **ordenantza** udalbatzatik pasa aurretik kontsulta publiko bat egitera behartzen gaitu.

133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea. 1. Lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrienen iritzia jasoko da, gai hauei buruz:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Une honetan indarrean dagoen diru-laguntzak etxebizitza blokeetan jartzen diren igogailuak bakarrik hartzen ditu kontuan, eta laguntzatik kanpo geratzen dira etxebizitza unitate bakarra baina solairu bat baino gehiago dituzten etxebizitzak, eta igogailuaz aparte bestelako komunikazio bertikalak instalatu nahi dituzten herritarrak. Diru-laguntzaren alderdi baztertzailer horri irtenbide bat eman nahi zaio ordenantzaren eguneraketarekin

b) Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Diru-laguntzen aurreikuspena 2025eko aurrekontuetan txertatzeko berritu nahi da orain ordenantza.

c) Arauaren helburuak.

Hala nahi den kasuetan nork bere etxean bizitzen jarraitzeko aukera bermatu nahi da, osasuna eta bizi kalitatea bermatzeko baldintza oinarritzko bat delako autonomia pertsonala.

d) Egon daitezkeen ordezkari irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak.